

BRETAÑAKO ARRANTZALEEN KANTA.

ARRANTZALEAK.



¡Zer dicha dan zero garbia dagoenean ichasoa sartzea; alabaña kanpoa beziñ ederra da ichasoa; eta zero urdiña beztutzen bada, gure biotzak geratzen dira esperantzarekiñ argituak, zeren Jaungoikoak laguntzen digun.

Jesus ona ikusten zan
 Ur gañean ibiltzen,
 Zabiltz, nere chalupa,
 Ez bildurtu arren.

San Pedro, San Andrés, Santiago eta San Juan, zeintzuen pestak urteoro zelebratzen bai diran, gu bezelakoak izan ziran, eta, arrai arrapatzalle oriek, gero arrapatu zituzten gizonak beren sare santuetan.

Jesus ona ikusten zan
 Ur gañean ibiltzen,
 Zabiltz, nere chalupa,
 Ez bildurtu arren.

Baga gañean ikusi zuten zetorkiela gozoro eta ariñ erreñuaren gisan, eta Pedrok, jarraitzeko bildur zalako, deadar egiñ zion esanaz: «Salbanazazu, Jauna, bestela galdua naiz».

Jesus ona ikusten zan
 Ur gañean ibiltzen,
 Zabiltz, nere chalupa,
 Ez bildurtu arren.

Zure chalupan, Pedro Simon, ¡zer sermoi ederra predikatu zien Jesussek jende aei! jeta gero zure sare zarretan zenbat arrai arrapatu zan! arrantza ura mirarizkoa bai zan.

Jesus ona ikusten zan
 Ur gañean ibiltzen,
 Zabiltz, nere chalupa,
 Ez bildurtu arren.

Zure chalupan lo egin zuen egun batean, ¿eta oroitzen zera zer ekaitza sortu zan inguruan? Zu ikaratua esnatu ziñan; ark esan zien bagai, sosega zaitezte, eta aek, burua makurtu, eta obeditu zioten.

Jesus ona ikusten zan
 Ur gañean ibiltzen,
 Zabiltz, nere chalupa,
 Ez bildurtu arren.

Orra zergatik gure Jesus eseri zan chalupa beti dabill aize onarekiñ, ichaso eta ekaitzen bildur gabe aurrera dijoa beti San Pedroren chalupa.

Jesus ona ikusten zan
 Ur gañean ibiltzen,
 Zabiltz, nere chalupa,
 Ez bildurtu arren.

¡O Jesus arrantzaleen adiskidea! Atoz gaur gurekiñ chanela umill onetan. Ea, Jauna, lema artu, bedeinkatu familia mantentzen duen lana.

Jesus ona ikusten zan
 Ur gañean ibiltzen,
 Zabiltz, nere chalupa,
 Ez bildurtu arren.

MANUEL A. ANTÍA-KOAK.

(FERNAN CABALLERO-k gaztelaniaz izkribatutakotik itzulua).

